



Euskal Herria ezagutuz

ATXONDO (BIZKAIA)

Atxondotik infernura, bide okerretik zuzen

Gorputza espiritua baino errazago makurrarazten dela sarri entzun dugu. Hori bera frogatu eta “bide okerrean” zeudenak zuzentzeko ez zituen ahalegin gutxi egin inkisizioak Erdi Aroan. Euskal Herrian ezagunak dira XVI. mendean Zugarramurdiko eta Durangoko sorgin-guneetan jazotakoak. Inor gutxi daki, alta, mende erdi lehenago ere izan zela Durangon sorginkeriarekin lotutako beste prozesu bat, eta haren arrastoak gaurdaino iritsi direla, oroitarri gisara.

Testua eta argazkiak:

| AITOR KALTZAKORTA |

IPIZTE MENDIAN, Anbotoko tontorretik hurbil, bada Ipiztekoarri izeneko harri koskor bat. Gurutze bat dauka alde batean, eta ez du metro erdi baino gehiagoko altuera. Ez dauka beste ezer idatzita, eta behin baino gehiagotan jasan behar izan ditu Atxondoko eta Aramaioko bailarez zein Urkiolako parke naturalaz gozatzerako doazen mendigoizaleen begirada galduak.

Harri hori lekuko bat da, 1437 eta 1441 urteen artean gertatu zen

gatazka odoltsuaren testigantza mutua. Eta Anbotoko gaina eskolatzen duen mendilerroan egonik, nola ez, sorginez mintzo dena.

Arrazolatik zerura

Arrazolatik Ipiztekoarriagarainoko bidea egiteko hainbat aukera dau-den arren, inguruko mendietako tontorretatik pasatzeko baliatuko dugu irteera. Atxondoko bailaran barrena egin beharko dugu ibilgai-luarekin lehenik, Anboto eskubian

utzita, Arrazola auzora eta bertako San Roke ermitara iritsi arte.

Bidea oso ondo markatuta dago ikur hori eta zuriekin. Horiei erreparatu eta pista hartuta hasiko gara bidea egiten. Ordubete egin orduko iritsiko gara Besaide (552) gainera. Bizia galdu duten mendizaleen omenezko oroitarria dago Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak bat egiten duten hodei arteko gunean.

Lehen aldapa gogorrak atzean utzita pinudi zabal bat zeharkatu eta

ANZIZAR
CARAVANING

- Toldoak
- Berogailuak
- Bigarren bateriak
- Alarmak
- Giratorioak
- Multimedia


BEASAIN

☎ 943 88 17 00
anzizar@anzizar.com - www.anzizar.com

Aldori landetxea

Zabale, 8 · Muxika (Bizkaia)
 ☎ 94 627 15 09
www.aldori.es

ERDIKO KAIERA • IHESI: ATXONDO (BIZKAIA)



Goian, ezkerrean, San Roke ermita, Arrazola auzoan. Eskubian Ipizte, Arrazolatik ikusita. Behean, Anboto, Ipizte eta Tellamendi mendiak, Otxandiotik ikusita.

Larrabil (669) tontorrerainoko bidea egingo dugu segidan hegoalderantz hartuta. Ez da beharrezkoa Besaidetik pasatzea, eta Arrazolatik zuzenean igo daiteke bertara ordu-betea. Aurrera jarraitu behar dugu orduan, parean dugun muinoa ezkerrean utzita, Lurgorri (782) helburu. Puntu horretatik dauden bistak paregabeak dira, Anboto parez pare topatzeak ematen du benetan hain-

bestetan bidetik ikusi dugun mendiaren neurria.

Hamar minutura dago Tellamendi (835). Bertako gurutze handia atzean utzi eta beherantz egingo dugu Ipiztekoarriagaraino. Parean Aramaio eta Arabako lurrak zabaltzen dira. Inguruan, tontorrerako bidean, garai batean Aramaioko kartzelatik ihes egin ostean Santa Kruz apaiza hartu zuen leizera iritsiko gara.

Mendekuaren oroitarria

Ipiztekoarriak gurutzea du alde batean, eta kondairaren arabera leku horretan hil zuten harrika inkisizioak Durangoko heretikoak epaitzeko bidali zituen apaizetariko bat, Calahorrara bueltan zela. Goazen, baina, kondairaren hasierara.

XV. mendearen erdialdean eliza katolikoa krisi sakonean zegoen. Eliza barrutik berau kritikatzeko zuten

KILO TERDI TXOKOA
Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Natura sentitu

Gorozika
Aterpetxea
www.gorozika.com

Gorozika Auzoa, 25 · Muxika (Bizkaia)

Harremanetarako:
☎ 946 731 332 · gorozikanatura@gmail.com

**Ipiztekoarriak gurutzea
du alde batean, eta
kondairaren arabera hor
hil zuten harrika
inkisizioak Durangoko
heretikoak epaitzeko
bidalitako apaizetako bat**

eta erreforma eskatzen zuten aho-
tsak gero eta gehiago ziren. Ustelke-
ria zen nagusi instituzioan eta herri
xeheak aldatetarako eskatzen zituen.

Krisi horrek iraganeko erritu eta
tradizioei oso lotuta zegoen Euskal
Herrian ere izan zuen isla, eta gataz-
ka sozial eta politiko egoerak
Durangon egin zuen eztanda. Frai
Alonso de Mella frantziskotarrak
Bizkaiko herrian egin zuen habia,
eta bertatik hasi zen eliza katolikoak
hartu zuen bide okerra zuzentzeko
predikuan. Beste fraide frantzisko-
tar batzuk batu zituen ekinaldira,
eta anaitasunaren bertuteak heda-
tzen hasi zen herritarren artean.
500 jarraitzaile baino gehiago bildu

**Kurutzeagako gurutzea, XV. mendean Durangon erre zituztenen omenezko
monumentua, Kurutzesantu museoan ikusgai dago gaur egun.**

zituen, eta horrek alarmak piztu
zituen gortean.

Hamahiru erre, ehunka torturatu


1442ko urtarrilaren 30ean Gaztelako
Joan II.ak Alcalá La Realgo abadea
eta frai Frantzisko Soriakoa bidali
zituen mugimendu iraultzaile horren
ingurukoak aztertu eta epaitzera.
Fraide Alonso de Mella eta haren
jarraitzaileak heresiagatik eta sorgin-
keriagatik akusatu zituzten, beste

salaketa askoren artean. Gertakariak
epaituta hamahiru pertsona erre
zituzten Durangoko merkatu pla-
zan. Inkisizioak beste asko torturatu
ostean Valladoliden-eta erre zituz-
ten. Prozesu horren ondorioz, ehun-
ka errepresaliatu izan ziren.

Durangon, heresia horren aldeko-
ak exekutatu zituzten lekuan, beka-
menezko monumentu gisara Kuru-
tzeagako gurutzea jarri ei zuten.
Kurutzesantu museoan dago egun. ■



TXELU ANGOTTA



Arriola Txiki
Nekazalturismoa

Arriola auzoa · 20829 DEBA
☎ 943 192 000 / 606 522 147 · arriola_txiki@hotmail.com

SaiazGetaria
H o t e l a



Roke Deuna, 25 • GETARIA
www.siazgetaria.com • Tel.: 943 140 143

VRPA
autobusak

**22, 28, 31, 55 eta 60
plazakoak**

**Autobus literadunak
Europar zehar ibiltzeko**



Ubilluts auzoa, 55. poligonoa, 9.eraikina-4. · 20140 Andoain
Tel.: 943 305050 Faxa: 943 305060
www.autocaresurpa.com · info@autocaresurpa.com

PETROMIRALLES
GASOLINA-ZERBITZUGUNEA

Karrika industrialdea / 6. partzela
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 305 058

24 ORDUZ



63 hornitze gune Petromiralles Cards-ekin

